



MUSIKA

Rock-and-rollaren esentziak ez du adinik



IKER BARANDIARAN

Ez naiz batere nostalgikoa eta jakitun naiz belaunaldi bakoitzak bere tententziak dituela edo izan beharko lituzkeela. Era berean, oso argi daukat jada rock-and-rollak ez duela gazteen arreta pizten, punk-Oi!aren salbuespen harrigarriarekin, alegia. Hala ere, irribarra irten zait disko honetako lehen kantant *baby* hitza irakurri dudanean. Bestelako konnotazioetatik kanpo (zorionez), disko eta talde honek rock-and-rollaren topikoetatik gustura edaten du. Haize kontra ari direlako ere, pozten naiz.

John Dealer and The Coconuts taldea 2015ean sortu zen Legazpin, rock-and-rolla zentzu zabalenean ingelesez –eta ondo ahoskatuta– egiteko asmo sutsuaz. Bestelako proiektuetan parte hartuak ziren lau gazte elkartu ziren talde berean

indarra jartzeko gogotsu. Kontzertuak egiten hasi eta 2016an maketa kaleratu zuten. 2018an *We will get together in hell* lana kaleratu zuten. Azken lan honek, berriz, lehen aldiz euskarazko bi kanta jaso ditu. Aurrekoan bezalaxe Beasaingo Pottoko estudioan grabatu dute, Freddy Pelaez handiarekin.

Queens don't fall in love kantak badu Glueciferren urgentziatik eta harrotasunetik, baita 77ko punk-rockaren melodiatik ere, eta riff-ak asko gogorarazi dit Nirvanaren ezetz asmatu zein kanta. *Say no-k* badu ahaidetasuna Hellacopters-en *High Visibility* garajeroagoarekin –glam, rock dotorea...– eta Freddy Pelaezen hammond-ak ez dauka Boba Fett-aren inongo inbidiarik. *Someone Split the beer on my head* borrokalaria-



RED LIGHT STORIES

JOHN DEALER AND THE COCONUTS

AUTOEKOIZPENA

goa da eta oinarrizko rock-and-rollaren eta rockabillyaren kadentzia dauka, iluna eta bizia. Argi utzi dute, baita ere, euskaraz proposamen interesgarriak lantzeko gai direla, eta *Bukatu da* tempo Erdiko 70eko hamarkadako hard-rock pieza dotorea oparitu digute. Rock-and-rollaren abaniko zabalean denboran atzera eta aurrera eginez, *Tell me why* kantant Detroiten aspaldi high-energia eta soula ezkondu nahi zituzten Rationals moduko taldeen parean kokatu dira. *City of RnR*-ek ere badu iraganeko doinu indartsu eta sarkorretatik, *Severgrooves*-en dotoreziaren pare. *Ez gara ezer* eta *Never giving up*-ek taldekideen asmo eta kezkek plazaratzen dituzte modu itsaskorrean, klasikoagoan eta zuzenean. ●